

## Arrandia

**T**he Young Pope telesailko 3. atalean aita Valentek Esther eramaten du Aita Santuaren bulegoraino. Bidean galdetzen dio inoiz egon den Jauregi Apostolikoan eta emakumeak, suitzar goardia baten emaztea bada ere, ezetz erantzuten dio, txundigarria dela. Apaizak baieztatzen dio asmo horrekin eraikei zela.



**JIRA**  
Angel Erro

Eszenaz oroitu naiz aste honetan Espainiako errege-erreginei Elizabeth II.ak egin dien harrera hanpurutsua edo Macronek Trumpi eskaini dion ongietorri handiosa ikusita, Napoleonen hilobia

ikusi edo desfile nazionalera gonbidatzea barne. Hedabideek kasu batzuetan motibazio ezberdin bat ikusi dute. Erresuma Batua eginahalean arduratzen da, europar estatuburu baten biren bisita ofizialean, deskonexioak ahalik eta trauma gutxiena ekar dadin. Frantziak, berriz, AEBeko presidentea nazioarteko isolamendutik atera nahi omen du eta, beste batzuek diote, liluratu haren politikak leuntze aldera. Teoria horien arabera, luxu eta iraganeko lorien erakuskeria nazioarteko parekoarengan eragiteko tresna litzateke. Baina ez zait iruditzen Trump txundiarazteko beste urregorri dagoenik munduan. Distira horien hartzaileak gu gara. Guregan sartu behar du eragina, tradizioari zor, bisita ofizialez baliatzen badira ere irradiatzeko.

## Maiderrren gailetak

**M**aider, urte biko alabatxoa, zaintzeko galdegin zidan lehengoan lagun batek: tori, bere kantinplo- ra eta gailetak. Arduratuta ni: gailetak eta kantinplo- ra baino ez? «Maiderrera-euskara/euskara-maiderrera» hiztegia ez al didazu ekarri? Etxean ahaztu zitziola berak, baina egoteko lasai, ondo moldatuko nintzela. Eta han goaz paseoa, Maidar apaxi eginda eta ni karrotxoari bultzaka.



**BIRA**  
Miren Amuriza

Negar zotintxo bat egin orduko eman nion gaileta paketea: ez dakidala arrantzaka hasi, ez dakidala arrantzaka hasi... Eta pozarren hartu zuen. Handik laster, non egiten dugun topo auzoko batekin:

Maidertxo, ze goxoak gailetak, e? Emango al didazu bat? Eta Maiderrrek eman. Aurreraxeago koadrilako bat: gailetatxo bat emango, potxola? Eta Maiderrrek eman. Jubilatua bat hirugarrenik: Maidar, neska-handi, gailetarik bai niretzako? Artean txikia mutu eta ni (botabertsobat, botabertsobat bedeinkatua gogoan) neure alaba izan balitz ez emateko aginduko niola pentsatzen; jubilatuari erantzungo niola emateko berak poltsan zeukan laranjetako bat umeari, edo eztizko karamelu bat, edo trago bat bere kafesnetik. Ordea, Maiderrrek hirugarrena ere eman eta (oke-rragoa dena) jubilatua hartu. Hantxe neukan haurra, bere musu eta esku txokolatezatu, karrototik begira-begira: kokoteraino nago. Horixe ez ote zuen esan. Baina ez nago ziur, hiztegia falta nuen eta.

# Tortura manifestazioetan? Bai horixe!

**Jon Mirena Landa**  
EHUko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedraren zuzendaria

**G**ure herrian, polarizazio politikoa- ren ondorioz, batzuetan errealtateak beste batzuetan errealtateak ukatzea, gutxieste, izan da nagusi. Egitateei, giza eskubideen urraketa larriei kasurako, so egin beharrean, askotan, ez baleude bezala egiten genuen (zenbat biktimak ikusezin!), eta batzuetan, ordea, dagoenetik askoz harago joan nahi izaten zen (izaten da: horra hor guttiz eskandalagarria den Altsasuko kasua!), «nireak», «nire zauriak», «nire kausa politikoa» ageriagoan uztearren, horrela arrazoia irabaziko bagenu bezala.

Dinamika horretan harrapatu- rik suertatu den kasu bat askoren gainetik torturarena izan da. Hainbaten aldetik ukatzen da errotik egon izana, indarkeria politikoa- ren tes- tuinguruan batez ere, harik eta horri erabateko buelta eman arte, tortura salatzen duena salatua izateraino. Baina ukazio erabatekoaren ondoan aitorrua estrategia ez da ukatzea, garrantzia kentzea baizik: hainbes- terako ez bailitza. Eta hor hizkun- tzak, terminologiak bere lana egiten du, hitzok estalki ideologiko gisa erabiliz: laburbildurik, ez dezagun deabrua aipatu; alegia, «tortura» ez da. Eta horren harira, hots, tortura ukatzen eta gutxiesten duten dina- mikaren aurrean, Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiak berriki eman duen epai bat aztertzea merezi du.

Bartesaghi Galo eta beste batzuk vs Italia. 2017 (ekainaren 22ko) epaiak ari gara, Estrasburgoko Auzi- tegiaren 1. aretoak emandakoaz hain zuzen ere. Egitateak Italian gertatu ziren, 2001eko utzailaren 21ean, G8 mandatarien gailurra ospatzen ari zen protesta batzuen testuinguruan. Aipatu egunean, gauetz, polizia- uni- tate berezia indar osoz sartu zen

Genovako eskola batera (Diaz-Perti- ni izenekora), barruan zeudenen kontra ikaragarrikeriak egiten. Ger- takizunaren tamainaz jabetu gaitze- zen, azpimarra dezagun ia ehun per- tsona atxilotu zituztela, eta horietatik 78 ospitalera eramane behar izan zirela. Oihuka eta meha- txuka sartu ziren (*VII Nucleo anti- sommassa* unitateko) istiluen kon- trakoz polizia, aurpegia estalita, kasko eta ezkutuz horniturik, berta- koen aurka ostikoka eta ukabilkada- ka, borraz kolpeka aritu ziren behin eta berriz, baita lurtean baketsu eskuak altxatuta zeudenen aurka ere. Polizia batzuek altzariak ere bota zituzten. Polizia operazioaren ondorioz, hainbat lesio izan ziren.

Norbaitek esango du: bueno bai, polizia aurrera eramaten duen gehiegikeria, indarraren erabilera neurrigabekoa eta hortaz ez-zilegia, arbuatuzkoa. Eta hori dena egia da, egindakoa halako hitzetan sartzen baita. Gure artean, Euskal Herrian, «polizien abusuak» leloaren baitan sartuko lirateke hainbaten aburuz. Baina hori egia izanik ere, ez da egia osoa. Ez bederen Bartesaghi kasuan.

Izan ere, esku artean dugun kasu zehatzetan bestelakoa izan baitzen erabilitako molde terminologikoa. Italiako Auzitegiak berak barneko prozesu penalean tortura izan zela aitortu zuen. Hori bai, torturaren definizio legezkoak kasua hartzen ez zenez, lesio delitu bezala tipifikatu behar izan zuen. Hori dela eta, azke- nean ez zen inora iritsi. Horregatik, salatzaileek Estrasburgora jo dute.

Giza Eskubideen Auzitegiaren esa- netan, zalantzarik gabe indarkeria- ren erabilera sistematiko, neurriga- beko eta diskriminaziorik gabeko izateaz aparte, ez zegoen halakorik egiteko inongo oinarririk: alegia, ez zegoen halako operazioa aurrera eramateko inolako premia- zko egoe- rarik edota mehatxu hurre- hurre- korik polizien esku- hartzea ahalik eta lasterren eskatzen zuenik. Hor- taz, poliziek eskolara sartzeko plana prestatzeko behar besteko denbora izan zuten, polizia- operazioa taxuz- koa eta neurrikoa izan zedin. Poli- zien artean –jarraitzen du Estras- burgoko epaiak– baziren

eskarmentu handiko poliziaburuak, indarraren erabilera zeresana zute- nak baina ez zutenak, aitzitik, inola- ko argibiderik eman, haien betebe- harra bazen ere. Laburbilduz: ez zen ondo planifikatu, ez ziren argibide egokiak eman, eta, indarra modu sistematiko eta neurrigabearen erabili zuteneko gero, egindakoa «tortura» gisa jotzen da. Ez tratu krudelak edo ez- gizatiarrak; tortura, baizik.

Teknikoki, torturaren debekua aurreikusten duen 3. artikulua, arlo substantiboan, urratutzat jotzen da. Estrasburgoko Auzitegiak gutxitan aldarrikatu du halakorik. Gutxitan, torturaren izenak eta izanak duen estigmatizatze-ko ahalarrengatik. Estatu bat «torturazalea» izatea, karga handiko etiketa denez gero, ez da askotan gertatzen 3. artikulua bortxatu denetan hain urrun joatean.

Inor gutxi esango liguke kalean galdetuz gero manifestazioetan ger- tatzen diren gehiegikeriak «tortu- ra» bezala kalifikatu daitezkeenik. Askotan, esparru horietan beste aldera begiratu ohi da, «okerrak» edota «abusuak» direlakoan. Indar- keriaren erabilteko moduari eta neu- rriari dagokionez, ordea, tortura ere izan liteke, Estrasburgoko auzitegia- ren esanetan.

Espainiako diktaduraz geroztik, tortura beti izan da ukatua gure artean. Politzia demokratiko batek ez luke beldurrik izan behar tortura aitortzeko. Horrek ez du zertan behar bezala jarduten duten milaka polizien lana belztu. Areago, horren aitortpenak, horren prebentzioak eta horren aurkako zigorrak txerto efektua edukiko luke, polizien lan fidagarriago eta profesionalagoa sus- tatuz. Ez dezagun tortura erabili modu orokorrean borroka politikoko- rako. Baina ez dezagun ahaztu tor- tura egon badela, eta ez bakarrik polizia etxeetan. Begiratu diezaiogun aurrez aurre errealtate gordin horri. Ez dezagun ukatu, ezta gutxietsi ere. Sar dezagun haren aurkako borroka eta tratamendua gure etzabaida publiko eta demokratikoan. Horre- tarako, ziur lagungarriak izango zaizkigula Estrasburgotik datozen adibidea eta autoritatea, baita ausar- dia ere.